

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

| | | | |
|--|---|----------|-----|
| PRESTAKUNTZA-MODULUA | EGUNEKO MAKILLAJEA | Iraupena | 60 |
| Kodea | MF0346_1 | | |
| Lanbide-arloa | IRUDI PERTSONALA | | |
| Lanbide-eremua | Estetika | | |
| Profesionaltasun-ziurtagiria | Estetikako zerbitzu osagarriak | Maila | 1 |
| Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko behar den gainerako prestakuntza | Higienea eta segurtasuna edergintza-zentroetan | Iraupena | 30 |
| | Azazkalen oinarriko zainketa estetikoak | | 60 |
| | Ilearen depilazio mekanikoa eta dekolorazioa (zeharkakoa) | | 90 |
| | Estetikako zerbitzu osagarrietako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak. | | 120 |

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0346_1 EGUNEKO MAKILLAJEAK APLIKATZEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Eguneko makillajea aplikatzeko tresna eta kosmetiko egokiak hautatzea eta prestatzea.

EI1.1 Makillajearen erabiltzen diren tresnak zerrendatzea, eta haiek behar bezala erabiltzeko, garbitzeko eta kontserbatzeko arauak ezartzea.

EI1.2 Erabiliko diren kosmetiko garbigarriak edo apaingarriak prestatzea, eta lana errazteko moduan ordenatzea.

EI1.3 Produktu kosmetiko apaingarrien tonuak bezeroaren larruazalaren, ilearen, begien eta arroparen tonuen arabera hautatzeko irizpideak deskribatzea.

EI1.4 Argiak eguneko makillajearen zer eragin duen azaltzea.

A2: Higiene-teknikak aplikatzea, eta bezeroa eta haren aurpegiko larruazala eguneko makillajea aplikatzeko prestatzea.

EI2.1 Estetikako laguntzaileak zer itxura izan behar duen deskribatzea: ilea, janzkera, osagarriak eta higiena.

EI2.2 Makillaje-teknikak aplikatzeko bezeroak eta profesionalak izan behar duten jarrera higienikoa deskribatzea.

EI2.3 Behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean: Bezeroa higiena-jarreran jartzea, eta haren jantziak babestea makillajea kentzeko teknikak aplikatzeko.

EI2.4 Makillatu aurretiko teknikak aplikatzeko kasu praktiko batean:

- Aurpegiaren gainazaleko higiene-eragiketa teknikoak produktu kosmetiko egokiak erabiliz eta eremuaren arabera norabide egokiak deskribatuz egitea: begiak, ezpainak, aurpegia, lepoa eta bularraldea.
- Aurpegiko larruazala suspertzea, begi-ingurua saihestuz.
- Kosmetiko hidratatzailea edo tenkatzailea fabrikatzailearen argibideei jarraituz ematea.

A3: Eguneko makillajea aplikatzeko teknikak erabiltzea, segurtasun- eta higiene-neurriak errespetatuz, nahi den emaitza lortzeko.

EI3.1 Eguneko makillaje bat aplikatzeko bete behar diren segurtasun- eta higiene-neurriak deskribatzea.

EI6.2 Eguneko makillaje pertsonalizatua aplikatzeko kasu praktiko batean:

- Bezeroari begiratzea, eta haren estilo pertsonala ezagutzeko egin beharreko galderak egitea.
- Erabiliko diren koloreen harmonia finkatzea.
- Larruazal-motaren arabera dagokion makillaje-oinarria abileziaz ematea, teknika espezifiko erabiliz.
- Begi, ezpain eta masailetakoa kosmetiko apaingarriak teknika egoki bidez ematea, beharrezko tresnak abileziaz erabiliz.

EI3.3 Bezeroaren gogobetetze-maila —zerbitzuaren emaitzari buruzkoa zein arreata pertsonalari buruzkoa— zein den jakiteko aukera emango duten galderak egitea.

A4: Eguneko makillajearen prozesuak eta emaitzak identifikatzea, gerta litezkeen desbideratzeak zuzentzeko behar diren neurriak kontuan hartuz.

EI4.1 Makillaje-zerbitzua ematean hutsuneak eragin ditzaketen kausak zerrendatzea, teknikoak nahiz bezeroentzako arretari dagozkionak.

EI4.2 Bezeroaren gogobetetze-maila —zerbitzuaren emaitzari buruzkoa zein arreata pertsonalari buruzkoa— zein den jakiteko aukera emango duten galdera tipok egitea.

EI4.3 Zerbitzuan gerta litezkeen desbideratzeen zuzenketa-proposamenak egiteko neurri egokiak deskribatzea.

EI4.4 Bezeroaren gogobetetze-maila —zerbitzuaren emaitzari buruzkoa zein arreta pertsonalari buruzkoa— zein den jakiteko aukera emango duten galderak egitea.

Edukiak

1. Kolore-harmoniak.

- Harmonia eta kontrastea.
- Kolore beroak eta hotzak.
- Harmonien taula orientagarria.
- Koloreak hautatzeko jarraibideak.
- Makillajearen eta irudi pertsonaleko beste alderdi batzuen arteko harmonia: ezaugarri fisikoak, orrazkera, janzkera eta osagarriak.
- Gaur egungo makillaje-joerak.

2. Makillaje-ekipoa:

- Makillatzeko tresnak eta materialak: pintzelak, brotxak, belakiak, bekain-eskuilak eta abar.
- Tresnak eta materialak hautatzeko irizpideak.
- Materialen eta tresnen garbiketa, esterilizazioa, kontserbazioa eta mantentze-lanak.
- Kosmetiko apaingarriak hautatzeko irizpideak:
 - Oinarri-makillajea, akats-zuzentzaileak hautsak, koloreteak, finkatzaileak eta abar.
 - Begietarako makillajea: begi-itzalak, betile-maskarak, delineatzaileak.
 - Ezpainetarako makillajea.
- Hautatzeko eta aplikatzeko irizpideak:
- Ezpainetako eta begietako makillajea kentzekoak.
 - Emultsio garbigarriak.
 - Aurpegiko larruazal-suspergarriak.
 - Hidratatzaileak.
- Kosmetikoak prestatzeko, manipulatzeko, kontserbatzeko eta haien mantentze-lanetarako jarraibideak.

3. Aurpegiaren morfologia, larruazal-motak eta produktu kosmetiko apaingarria emateko metodoak

- Aurpegiaren azterketa:
 - Obaloen formak eta aurpegierak.
 - Aurpegi- eta aurpegiara-moten arteko desadostasun estetikoak.
- Larruazal-motaren ezaugarriak:
 - Normala.
 - Lehorra. Alipikoa. Deshidratatua.
 - Koipetsua. Seborreikoa. Deshidratatua. Asfiktikoa edo okluitua.
 - Sentikorra.
 - Zahartua.
- Metodoen sailkapena: Ukitu homogeneous eginez ematea. Delineatzea eta nabarmentzea. Nabarmentzea. Arrastatzea eta lausotzea. Lerratzea. Beste batzuk.
- Kosmetikoak emateko metodoak hautatzeko irizpideak.
- Gauzatze teknikorako urratsak.

4. Makillaje-zerbitzua antolatzea eta bezeroa prestatzea segurtasun- eta higiene-kondizioetan

- Lanerako ekipoa eta espazioa prestatzea.
- Bezeroa kokatzea: jarrera higieniko gomendagarriak.
- Makillaje-prozesuetan bezeroa babesteko neurriak: Bezeroa babesteko erabiltzen diren materialak eta baliabideak.
- Makillaje-zerbitzuen arriskurik ohikoenak prebenitzeko neurriei eta oinarrizko zainketei buruzko informazioa.

5. Eguneko makillajea aplikatzeko prozesuak

- Larruazaleko makillajea kentzeko eta azaleko garbiketa egiteko teknika.
- Bekainak, begiak, masailalboak eta ezpainak zuzentzeko teknika.
- Oinarriko makillajea emateko teknika.
- Begiak makillatzeko teknika.
- Ezpainak makillatzeko teknika.
- Hauts zeharrargiak eta koloreteak emateko teknika.
- Betileetako makillajea emateko teknika.
- Makillajea finkatzeko teknika.

- Segurtasuna eta higiena makillaje-prozesuetan.
- Makillaje-prozesuetan profesionala babesteko neurriak. Jantzera. Lanerako jarrera higieniko egokiena.
- Makillaje-zerbitzuan gerta litezkeen aurreikusi gabeko gorabeheretarako oinarritzko ekintzak eta botikina.

6. Eguneko makillajea aplikatzeko prozesuen ebaluazioa eta kalitate-kontrola

- Kalitatearen kontzeptua makillaje-prozesuetan.
- Makillaje-zerbitzuen kalitatea definitzen duten parametroak.
- Kalitatea makillaje-zerbitzuak aplikatzean eta saltzean.
- Bezeroak zerbitzuari dagokionez nahiz jasotako tratuari dagokionez zer-nolako gogobetetze-maila duen neurtzeko teknikak.
- Makillaje-zerbitzuetan izandako desbideratzeak zuzentzeko teknikak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Ez dago sartzeko eskakizunik

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Estetikako zerbitzu osagarriak.